

Pribilegio errodatuaren xehetasuna, zeinaren bidez Alfonso X.k
Forua eman zion Korres herriari 1256ko otsailaren 3an.
Arabako Lurralde Historikoaren Artxiboa. Sign DH 246-3.
Foto Quintas.

• • • • • Arabako Biltzar Nagusiak

Arabako probintziako ermandadearen hasiera

César González Mínguez



ARABAKO PROBINTZIAKO ERMANDADEAREN HASIERA

César González Mínguez

ARABA: LURRALDE EZTABAIDATUA

Alfonso III.aren Kronika, IX. mende bukaeran idatzia, Kantabria eta Euskal Herriko eremuaren historiografia-bataio da. Horretan “Álava” toponimoa lehendabizikoz agertzen da; VIII. mende erdian Asturiasen izandako Alfonso I.aren kanpainak aipatu ondoren hauxe adierazten du:

«en aquel tiempo fueron pobladas las Asturias, las Primorias —zona de Cangas de Onis—, Liébana, Transmiera, Sopuerta, Carranza, Vardulias, que ahora es llamada Castilla..., Álava, Vizcaya, Alaón —¿Ayala?— y Orduña fueron siempre poseídas por los suyos»¹.

Kronikazko testu labur honek gutxienez bi interpretazio izan ditzake. Alde batetik, Arabako lurraldea, Bizkaia, Aiara eta Urduña bezala, ez zituela Alfonso I.ak birpopulatu, errege honek astur erresumaren beste alderdi batzuetan egin zuen moduan. Bestalde, uler daiteke musulmanek ez zituztela lurralde horiek menperatu, eta beti bertakoen kontrolpean egon zirela. Dena dela, VIII. eta IX. mendeetan lurralde horiek Kordobako emirrek bidalitako razzia batzuen eragina izan zuten. Bi mende horietan “Álava” toponimoa Arabako lautadari dagokio, eta zehazkiago Gasteizko iparralde eta ekialdeari, gutxi gorabehera “Arabagunea” deituriko ekialdeko erdiarekin bat etorritik, «Reja de San Millán» izenarekin ezaguturiko agirian, 1025. urtekoan, azaltzen denaren arabera. Identifikazio hau 1258ko agirian Arriagako Kofradiarako zehaztutako mugarekin bat dator, aldaketa txiki batzuk badira ere. Arabagune honi beste inguruko Araba erantsi zitzaion,

Aiarako lurraldeaz osaturikoa, Baias ibaiaren mendebaldean kokatzen dena, Trebiño eta Arabako Errioxa.

Goi eta bete-beteko Erdi Aroari dagokionez, agiri eza dela-eta, oso zaila da zehazki jakitea nolakoa zen Arabako gizartearen antolaketa politikoa. Araba inguruko lurraldean bata bestearen atzetik sortuko ziren goi mailako erakunde politikoen –hau da, astur erresuma, Iruñako erresuma eta Gaztelako Konderrria– partaide izango zen. VIII. eta IX. mendeetan jatorrizko Gaztelako lurraldeek (Burgoseko iparraldean) eta Arabakoek astur erresumaren ekialdeko muga nagusia eratu zuten, iparraldeko penintsula edo Ebro haraneko musulmanek behin eta berriz egindako erasoak aurka eginez. Aipatu behar da ekintza militar horrek bi lurralde horien sendotze politikoa ekarri zuela, eta IX. mendearen erditik aurrera bertako buruzagiek agitzen dute; buruzagi horiek konde titulua zuten eta nolabaiteko lotura politikoa zuten astur erresumarekin.

X. mende hasieratik Arabako lurraldea kristau–musulmanen mugaren erretagoardian gelditu zen behin betiko, Kordobako emirren erasoaldiak zein Errioxan sendoki ezarritako Banu Qasi familia ahaltsuaren erasoak jasan gabe.

X. mendean Araban oso nabaria da Gaztela eta Iruñako eragina. Arabako hiru konde hauen izenak dira ezagunak: Munio Vélaz 919. urtean, bertako familia batekoa seguru aski; Álvaro Herremálliz 931. urtean, Jimeno Garcés Nafarroako erregearen gortean harremanak onak zeuzkana eta, azkenik, Fernán González (932–970), Gaztelako kondea ere bazen eta bi aldiz ezkontuta Nafarroako bi errege–alabarekin, zeinen eragina Gaztela erresumara nahiz Arabako lurraldeetara iritsi zen gero eta gehiago, batez ere X. Mendearen azken herenean eta XI.aren hasieran. Gaztelako azken konde subiranoa, García Sánchez (1017–1029), oso gaztea zenez, Nafarroako Sancho III.a Handiaren, koinatuaren, erregeordetzapean eta babespean egon zen. 1024tik aurrera, gordetzen diren agirien arabera, Santxo III. a Sobrarbe, Ribagorza, Aragoi, Iruña, Nájera, Araba eta Gaztelako

errege izan zen. García Sánchezek oso gazte eta modu tragikoan hil zen Leonen (1029), eta horrek Santxo Handiaren lehentasuna indartu zuen azken bi lurraldeetan.

Nafarroaren agintearen azpian, Munio González dugu Arabako gobernuaren buru 1030. eta 1043. urte bitartean. Honek konde titulua zuen, baina ondorengoak, Fortún Iñíguezek, ez zuen konde titulurik. Hala ere, Munio Gonzálezek agintaldia oso laburra izan zen, jadanik 1045. urtean Munio Muñoz kondea, seguru aski 1054an Atapuerka batailan hil zena, horren buru agertzen baita. Ondoren, Domno Marcelo izengoitiak ezaguturiko Álvaro Díaz kondea nabarmentzen da Arabako gobernuan; baina horrekin amaitzen da Nafarroak Araban duen subiranotasuna, momentuz behintzat. 1076an Nafarroako Sancho IV.a Peñaléne hil zuten. Ondorioz, Gaztelako Alfonso VI.a eta Sancho Ramirez Aragoiko erregea Nafarroako erresumaren dinastia–krisialdi larria horretaz baliatu ziren: lehenengoak Errioxa eta Nafarroako, Bizkaiko eta Arabako zati bat eskuratu zuten, eta bestea Nafarroako erresumaren gainerako lurraldeak eskuratu zituen, nahiz eta 1134. urtera arte Aragoiri lotuta egon. Alfonso VI.ak Bizkaiko jaunei laga zien Arabako gobernu, jaun horiek Gaztelako erregearen konfiantza osoa baitzuten: hasieran Iñigo López de Vizcayari eta, ondoren, Lope Iñíguez (1078–1093) semeari eta Diego López de Haro ilobari (1093–1124), hurrenez hurren.

1134. urtean Iruñako monarkiaren berrezarkuntza gertatu zen, García Ramírezen bidez (1134–1150); honek Sancho III.a Handiak hil aurretik ezarritako mugak berreskuratzen saiatu zen. Erreinuaren azken urteetan García Ramírezek Iruña, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako erregetzat hartu zuen bere burua; azken hiru lurralde horietan Nafarroako Ladrón Iñíguez handikiak agintzen zuen, Konde titulua zuen. Horren seme Vela Ladronek Arabako konde izan zen 1158an.

Gaztelako Alfonso VIII.aren adingabetasuneko urte zail horiek ondo baino hobetu aprobeztatu zituen Nafarroako Sancho VI.ak, García Ramírezen ondorengoak, erresumaren muga mendebalderantz

zabaltzeko. Muga hori aldakorra izan zen 1179. urtera arte; urte horretan muga finkatu egin zuten, bi erregeek Nafarroa eta Gaztelaren arteko muga zehazteko ituna izenpetu zutenean: Kantauritik Deba ibaibideari jarraituz, Itziar eta Durango Nafarroaren barrutian geratu ziren, eta Malvecín gaztelua Gaztelan; Baias ibai-lerroari jarraituz, Zubarrutia eta Badaia Nafarroarentzat izan ziren, eta Morillas Gaztelarentzat; Langraiz Okatik aurrera mugak Zadorra ibaiaren ibilbidea jarraitzen zuen Ebroa heldu arte. Itun horren ondorioz, Nafarroako subiranotasuna «*in tota Alava*» edo “Araba osoan” sendotu zen.

1179. urtetik aurrera, Ladrón familiakoek Arabako konde-gobernutik kanpo gelditu ziren, urte horretan Sancho VI.ak Vela Ladrónen semearen, Juan Vélaizen, zerbitzuak alde batera utzi baitzituen. Hortik aurrera Arabako lurraldea zenbait edukitzetan banatzen da, eta haien jabetasuna eskuz aldatzen da sarritan. Horrela bada, Nafarroa erresuman zeukan ohore- eta edukitze-erregimen bera ezarri nahi zuen Sancho VI.ak Arabako lurraldean. Sancho VI.aren azken urteetako agiriek joera ugari eta jabeen mugikortasuna egiaztatzen garamatzate. 1181. urteaz geroztik, Arabak eta Gipuzkoak edukitze bakarra osatzen dute, Aitzorrozetik zuzendutakoa, non lau jaun izan ziren bata bestearen atzean: Diego López (1181–1182), Iñigo de Oriz (1184–1188), Pedro Ladrón (1194) eta Lope Sánchez (1195). Hona hemen Arabako beste edukitze batzuk: Trebiño, jabea Álvaro Muñoz, Zaharra, izan zen 1181–1187; Portilla, García Pérez de Morieta (1183–1194), Gómez Martínez (1194–1196) eta Martín Ruiz (1198) jaunaren esku egon zen elkarren segidan; Buradon eta Antoñana, 1181. urtean Gómez Martínezek berak agertzen da; Guardia, 1193an Martín Iñíguezek okupatzen zuen eta 1198an Gonzalo Baztánek; Zaitegi, Furtado de Álavaren (1192–1198) eta Iñigo López de Mendozaren (1194–1196) esku; eta Arlucea, zeinaren buruzagi Miguel de Lerat (1187), Pedro Ladrón (1189–1194), Lope Sánchez (1194) eta García Baztán (1195) izan ziren. Gasteiz ere edukitze bat osatu zuen, eta 1184tik aurrera Pedro Ramírez izan zen horren buru, seguru aski 1200. urtera arte, Alfonso VIII.ak garaitu zuenera arte.

Sancho VI.ak Arabako eremua politikoki berrantolatu zuen, erreinuaren gainontzeko lurraldeekin egin zuen moduan; eta 1162. urtetik aurrera “Nafarroako Erresuma” izenarekin ezagutuko dugu erresuma hori. Gainera, Arabako defentsa ziurtatzeko helburuarekin, zenbait hiribildu sortu zituen, adibidez Trebiño, Guardia, Gasteiz, Antoñana, Bernedo eta Argantzón. Nafarroaren azken fundazioa Labraza izan zen, Sancho VII.a Indartsuak egindakoa. Nafarroaren agerraldia Arabako lurraldeetan iragankorra izan zen, eta Gaztelako Alfonso VIII.aren erantzuna 1199. eta 1200. urte bitartean izan zen. Lehen urtearen udazkenean Gaztelako Erregea, Nafarroako erresumaren errege-indartzearen eta hiribilduen sorreraren aurkakoak ziren Arabako eta Gipuzkoako handikiekin alde aurretik negoziaketak egin zituen, ia Araba eta Gipuzkoa osoaz jabetu zen, eta Gasteiz bakarrak iraun zuen, 1200eko urtarrilaren hasierako egunetan amore eman arte. Arabako lurralde guztien artetik, Guardia eta bere eskualdea baino ez ziren gelditu Nafarroako jaurgoren agindupean.

Gaztela erresumarako sarrera hori erabatekoa izan zen Arabarentzat, eta egoera honek, Gaztelako Pedro I.a eta Enrique de Trastámararen arteko gerra zibilaren ondorioz izandako aldaketa izan ezin, horrela jarraitu zuen. Egoera hori aprobetxatuz, Nafarroako Carlos II.ak erasoaldia egin zuen 1368. urtean, eta Gaztelako zenbait plaza indarrez hartu zituen: Gasteiz, Agurain, Kontrasta, Santikurutze Kanpezu eta Dulantziko gotorlekua Araban; Erreterria eta Ordizia, Gipuzkoan; eta Logroño eta Agoncillo, Errioxan. Enrique de Trastámara tronuan finkatuta, 1373an leku horietan Gaztelaren subiranotasuna berrezarri egin zen, Guido de Bolonia kardinalaren sententzia bat betez, eta horrek, beste alde batetik, Nafarroak Arabako lurraldea dela-eta egindako aldarrikapenen amaiera ekarri zuen.

XIII. mendean Arabak bazeukan bere erabateko lurralde-itxuraketa, eremu murriztuei dagokien zenbait aldaketak salbu, eta XVI. mendean burutzen direnak hain zuzen ere. XII. mendeari dagokionez, Arabako lurraldearen itxuraketan bi multzo ikus daitezke, antolaketa politikoaren ikuspuntutik bereizten direnak: hiribilduak eta Arriagako Kofradia.

ARABAKO HIRI-GIROA

Hiribilduen fundazioaren prozesua edo Arabako lurraldearen urbanizazio prozesua 1140an hasi zen, Alfonso VII.a Enperadoreak Gesaltza Añanari forua eman zion unean. Foru hori zuela gutxi Alfonso I.a Bataiatzaileak emandakoaren berrikuntza izan zen. 1100. urte aldera, Lope González jaunak, Arabako tenenteak, Lope Iñiguezen suhiak, Bizkaiko jaunen bigarrenak, jaun-forua eman zion, egun ezezaguna, lehen «*uillam francorum de Estiualiz*» honi, baina ez zuen inoiz beste inguruko hiribildu batzuen garrantzia izan. Gogoratu beharra dugu Arabako tenentearen erabakia Gaztelako Alfonso VI.ak eramandako politikarekin lotuta dagoela. Errege honek Donejakueren erromesaldiak eta hiribildu berriak eratzea babestu baitzuen. Horixe argi egiaztatu daiteke, hainbat adibideren artean, Logroñori (1095) eta Miranda de Ebrori (1099) forua ematearekin. Bestalde, antzinako Portilla ere aipatu beharko genuke, izen bereko gaztelupean kokatua dagoena, Logroñokoan inspiratutako forua jaso baitzuen, noiz ez dakigun arren. Sancho IV.aren aginduz suntsitua izan zen 1288an, eta biztanleak egungo Portillan eta Berantevillan kokatu ziren.

Hiribilduak eratzeko ekimena Gaztela eta Nafarroako erregeengandik etorriko da, subiranotasun politikoaren jabetzan zituzten hautabideren arabera. Hiribildu berrien sorrera-prozesua, 1338an Zuiako Monreal sortzerakoan amaitu zena, arrazoi ezberdinengatik gertatzen da, arrazoi guzti horiek kasu guztietan ematen ez badira ere. Horien artean honako hauek aipa ditzakegu: defendatzeko eta mugak sendotzeko beharra, errealengo finkatzea, leku bati emandako forutik sortzen ziren errege-irabaziak gehitzea, trukeen eta merkataritza-ibilbideen garapena, jaunen presioak mehatxatzen zuen landa-jendea defendatzea, etab.

XII. mende erditik aurrera, hiribilduen eratze prozesuaren ondorioz, berrantolaketa garrantzitsua gertatzen da Arabako eremuan, eta berrantolaketa horrek jarduera ekonomikoen dibertsifikazioarekin bat dator, zeren eta, nekazaritzaz gain (eta nekazaritza eginbide nagusia izaten jarraitu bazuen ere), hiri-giroari dagozkien beste jarduera batzuk agertuko baitziren –hots, merkataritzarekin, eskulangintzarekin, zerbitzuekin etab.ekin lotutakoak–, gizarte-espektroa gehituz; izan

ere, beste hiri-klase batzuk sortzen dira, eta horien egitura ondo ezagutzen dugu azken urte hauetan Gasteiz, Guardia eta Agurain hiriei buruz egindako ikerketei esker.

1332. urtera arte, hau da, Arriagako Kofradia desegin zen arte, Araban 18 errege-hiribildu eratu ziren: Gesaltza Añana (1140), Trebiño (1151–1161), Guardia (1164), Gasteiz (1181), Antoñana (1182), Bernedo (1182), Argantzón (1191), Labraza (1196), Bastida (1242), Korres (1256), Santikurutze Kanpezu (1256), Agurain (1256), Kontrasta (1256), Urizaharra (¿1256?), Buradon Gatzaga (1264 aurrean), Artzeniega (1272), Berantevilla (1312) eta Done Bikendi Harana (1312–1319). Guzti horiek errealengoko lurraldean eratu zituzten, Arriagako Kofradiaren aginpidean sortutako bi hiribildu izan ezin: Gasteiz eta Agurain. Erregeak hiribildu bati forua emateak, edo beste era batera esanda, hiritartasun pribilegioak emateak, garrantzi handiko aldaketa administratibo eta politikoa ekartzen zuen. Hiritarrek lege-estatutu berezia zuten, foruan bertan jasotzen zena, eta horrek ezberdintasun handia sortzen zuen inguruko landa-jendearekiko. Hiritarrek, estatutu berezi horren ondorioz, hiribilduetatik kanpo errege-kargudunek zituzten eskumen judizial eta administratibo berak (hau da, ordezkaria, “merino” edo errege-epailea, zuzentza arduraduna etab.) eskuratzen zituzten, autogobenatzeko bidea irekitzen zietenak.

1332. urtetik 1338. urtera Arabako hirigintza osatu zen. Urte hauetan Alfonso XI.ak Erdi Aroko Arabako azken hiribilduak osatu zituen, hau da, Legutiano (1333), Dulantzi (1337), Burgelu (1337) eta Zuiako Monreal (1338); hiribildu horiek guztiak antzinako Arriagako Kofradiaren barrutian ziren.

ARRIAGAKO KOFRADIA ETA BATZARRAK

Arabako Kofradia edo, biltzen ziren leku izenagatik, Arriagako Kofradia deiturikoa, Erdi Aroko gai interesgarrienetako bat dugu, eztabaida biziak sortu zituen. Orain dela urte batzuetatik zenbait historiagileen

••••• 1332ko Borondatezko Eskaintza baino lehen sortutako Arabako hiribilduak



Gesaltza-Anaña. 1140. urtean sortutako hiribildua. Foto Quintas.



Guardia. 1164. urtean sortutako hiribildua. Foto Quintas.



Antoñana. 1182. urtean sortutako hiribildua. Foto Quintas.



Bernedo. 1182. urtean sortutako hiribildua. Foto Quintas.



Labraza. 1196. urtean sortutako hiribildua. Foto Quintas.



Salinillas Buradón. 1264. urtea baino lehen sortutako hiribildua. Foto Quintas.



Urizaharra. 1256. urtean sortutako hiribildua ? Foto Quintas.



Agurain. 1256. urtean sortutako hiribildua. Foto Quintas.



Kontrasta. 1256. urtean sortutako hiribildua. Foto Quintas.



Done Bikendi Harana. 1312-1319 artean sortutako hiribildua. Foto Quintas.

arreta sortu du eta, historiagile horiek, planteamendu ezberdinetatik abiatzen badira ere, Kofradiari buruzko interpretazio zehatzagoan aurrera egitera eraman gaituzte, antzinako eta zehaztugabeko jatorritik 1332. urtera arte, hau da, desagertu ziren arte.

Arabako Kofradiari dagokion lehen agiri idatzia 1258koa da. Agiri honek Kofradiaren itxuraketa dagoeneko zehatza eta nahiko eratuia zela adierazten digu eta, haatik, jatorria aski lehenago gertatu zela zuhurki pentsa daiteke. Agiri ezak jaiotzeko unea zehazten uzten ez badigu ere, birkonkista nahiz Arabako gizartearen feudalizazioarekin lotura estua badauka, noski. XI. mendearen bigarren erdian, agiri bidezko zenbait informazioaren arabera, eskualde zehatz batean —Baias ibaiaren ekialdean eta Ebroren iparraldean— lege-jarduera jakin batzuk bakar-bakarrik egiteko gaitasuna zeukaten «*seniores o barones de Alaba*» bazeudela pentsa daiteke. XII. mendearen bigarren erdian, antzinako «*barones o milites alavenses*» izenekoen protagonismo politiko eta soziala gero eta handiagoa da, Gaztelako Alfonso VIII.aren eta Nafarroako errege Sancho VI.a eta Sancho VII.aren arteko gerra-giroaren itzalpean. Ordurako Araban bi eremu bereizten dira argi eta garbi: bata errealengoa eta, bestea, jaurerrialdea. Lehena Baias ibaiaren mendebalde eta Gasteizko mendien hegoaldeari legokieke, eta Koroaren ofizialak zuzenean arduratuko dira lurralde horien administrazioaz eta gobernuaz. Bigarrena, Lautada eta hegi menditsuak dira, oraingo Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroako mugetaraino gutxi gorabehera, Arabagunea deiturikoarekin bat eginez, eta Arabako «*seniores*» izenekoek talde-jaurgoa zuten.

XIII. eta XIV. mendeetan, zenbait kronika eta agiri gutxiren bitartez, ongi karakterizaturik agertzen da Arabako Kofradia. Erakundearen ikuspuntutik, jurisdikzio-jaurgoa da, Bizkaia, Aia eta Oñatiko jaurerrien antzekoa, eta haren lurralde-esparrua Arabako handikien orube eta ondasunekin bat zetorren. Handikiek jauna hautatzeko gaitasuna zuten, eta horixe zen hauen bereizgarri nagusia, Alfonso XI.aren Kronikak adierazten duenaren arabera:

«*Et a las veces tomaban por Señor algunos de los hijos de los Reyes; et a las veces al Señor de Vizcaya; et a las veces al de Lara; et a las veces al Señor de los Cameros*»².

Kofradiaren lurraldea sortetxekoa izan da beti, hau da, jaurerrien jabetza erregea ez zen beste jaun baten esku zegoen; eta horrela gertatu zen 1200. urtetik aurrera, Nafarroaren subiranotasuna nahiz Gaztelaren subiranotasunaren azpian. Hala ere, jabetza nagusia edo subiranotasun politikoa Nafarroako Erregeen esku izan zen lehen eta, ondoren, Gaztelakoenean.

Jaunak, Kofradiaren kideek hautatuak, justizia administratzen zuen lurraldean, dela pertsonalki, dela jaunak berak izendaturiko errege-epaile eta alkateen bidez; errege-epaile eta alkate horiek Kofradiaren merindade edo eskualdeetan agintzen zuten. Bere jaurgoaren onespeneraren ezaugarri bezala nekazariak eta nekazari-morroiek «*pecho forero*» edo foru-zerga, hau da, «*semoioa*» eta «*martxoko idia*» ordaintzen zioten. Kofradiaren jauna lurraldearen defentsa eta segurtasunaren arduraduna zen, gazteluen jabetza mantenduz, eta behar zenean, gudari-taldeak deituz. Kofradiaren lurraldeak berezko eta ez idatzizko ordenamendu juridikoa zuen, ohitura eta erabileran oinarrituta. Horiek ziren, funtsean, “jaurgo bereziaren” ezaugarri nagusiak, Kofradiak bere lurraldean betetzen zituenak.

Erregeak, bere aldetik, jabego politiko nagusia edo Errege-jaurgoa gordetzeaz gain, berezko diru-eskubideak zeuzkan nekazari eta kofradia-kideen nekazari-morroien gainean, Gasteiz eta Kofradiaren artean 1258. urtean sinaturiko itunetatik ondorioztatzen denez. Kofradiaren jaunari ordaintzen zuten «*foru-zergak*» bestelako «*errege-zergak*» dira. Gainera, 1332. urte aurretik, eta hau ere 1258ko agiriak adierazten digu, erregeak, Kofradiaren edozein kidek bezala, bazeukan zenbait herentzia Arabako lurretan,

Kofradiaren batzarrak Arriagan biltzen ziren, Gasteiztik oso hurbil, gari modernoan Donibaneri eskainitako baseliza eraiki zen lekuan,



Gaztelako Errege Alfonso XI.aren eskultura Arabako Biltzar Nagusietako Osoko Bilkuren Aretoan. Carlos Imbert-en obra (1856). Foto Quintas.

Erdi Aroko batzarren aierupena dakarkiguna. Ezezaguna da bilkura haien aldizkakotasuna, baita noiz hasi ziren biltzen ere, 1258. urtetik aurrera egindako bilkurei buruz baino ez baitugu dokumentaziorik. Ordurako Arriagan egiten jarraitzen zutela gogoratzen da, «*assí como se suelen fazer*» (“egin ohi den bezala”), esandako toki hori Gasteizko lurralde-barrutian urte horretan bertan sartu bazen ere. Arriagako Batzarren jatorri oroitezin hori, Arabako kofradiako kide eta Calahorrako apezpiku izandako Juan Rodríguez de Rojas jaunak gogorazten digu. Honek, Kofradia desegin baino lehentxeago, Alfonso XI.ari honakoa esaten dio:

«todos los Fijos dalgo et Labradores de Álava están ayuntados en el campo de Arriaga, que es logar do ellos acostumbbran fazer junta desde siempre acá»³.

Batzarrak asanblada edo auzitegi goren gisakoak ziren; Kofradiaren jauna zen batzarren buru; eta “merino” edo errege-epaileek eta alkateek erabakitzen ez zituzten auziak ikusteaz arduratzen zen.

Jaun honek, bestalde, Kofradiaren kide eta haien menpeko guztien gainean zeukan agintea, baita arabarrak izan gabe haren lurraldean gaiztakeriak egiten zituztenen gainean ere. Arriagako Batzarrek Kofradiaren jauna hautatzeko eskumena zuten. Izan ere, Arabako eskualde batek nolabaiteko autogobenua edukitzeko gaitasuna izan zuen Erdi Aroan, 1332. urtera arte, eta hau ez zen Gaztelako erregea jaun nagusizat hartzearen aurkakoa. Eta gaitasun honen agerpena Batzarrak ditugu, hain zuzen ere.

Autore gehienek Arabako Kofradiaren noblezia-izaera aztertu dute behin eta berriz, kofradiako kideen izenen irakurketa hutsak erakusten digun bezala. Eta horien guztien artean 1332. urte inguruan honako abizen ezagun hauek nabarmendu ditzakegu: Rojas, Mendoza, Hurtado de Mendoza, Guevara, Ayala, Velasco, etab. Horien ordezkoak Trastámara etxeko nobleziaren leinu goren eta boteretsuenetarikoak izango dira. Nekazariak eta nekazari-morroiak ere baziren Kofradiaren partaide, baina etxeko seme eta

nekazari-handikien menpekoak ziren, eta haien zenbait eskubide ordaindu behar zizkieten. Errealitatean, nekazariak eta nekazari-morroiek Kofradiaren partaide izan eta batzarretara joateko eskubidea bazuten ere, etxeko semeek eta handikiek kontrol osoa zuten, eta haien artean *“kofradiako kide nagusiak”* nabarmentzen dira, aipatu ditudan abizenak, hain zuzen ere; horien guztien protagonismo politikoak eta indar ekonomikoak Arabako gizarte feudalizatuaren gailurrera altxatu baitzituzten.

Arabako Kofradiaren ibilbide historikoa 1332ko apirilaren 2an amaitu zen, *«Borondatezko Eskaintza»* edo *«Arriagako Ituna»* izenarekin ezaguna dena gertatu zenean, hau da, Kofradia borondatez desegin eta lurraldea Gaztela erresuman sartu zenean. Ekintza hori interpretatzerakoan, zenbait egilek nabarmendu dute hiribildu eta Arabako kofradia-kideen arteko liskarra, borondatezko desegite honen arrazoi nagusia izan zela esanez. Zalantzarik gabe, hiribilduak sortzeko prozesuak eragina izan zuen Kofradiaren jaurgoen gainbeheran, Arabako lurraldeko botere-egituran zenbait desoreka sortuz. Hala ere, gatazka hau ez da ematen hiribildu guztien aurka, Gasteiz eta Agurainen aurka baizik, bi hiribildu horiek Kofradiako lurraldean sortuak izan baitziren eta, horregatik, berenganatzen airi ziren inguruko herrien gainean jurisdikzioa eskuratu nahi zuten. Istilu horren lehen mugarrria 1258ko akordioa dugu, eta, honi esker, Kofradiaren hamasei herri banatu egin ziren Gasteiz eta Agurain artean. Gatazka horri garrantzirik kendu gabe, beharrezkoa da beste azalpen mota batzuetara jotzea. Bistakoa da *«Arriagako Akta»* –agiri horrek jaso egiten du Kofradiako lurrak 1332an errealegoan sartzen direla–, ezin dugula ulertu Arabako nobleziak XIII. mende erditik aurrera izan zituen oztopoak alde batera uzten baditugu. Arazoak feudalismoaren krisizat ezagutzen dugun testuinguruan kokatu behar ditugu; eta honen barruan, jaunek beraien irabazien urritzea tratatzeko egindako ahaleginen testuinguruan: izan ere, XI. mendetik XIII. mendera arte jaunen irabaziaz gero eta handiagoa izan ziren, baina hortik aurrera haien aldeko baldintzak aldatu egin ziren erabat. Hau da, Arriagako Kofradiaren desegitearen eta lurraldea errealegoan

sartzearen bidez, Arabako handikiek pribilegiozko estatutu juridikoa lortu zuten Alfonso XI.aren eskutik. Gainera, nekazariak lurraldean finkatzea ere lortu zuten, Kofradiaren herrietatik errealegoetara eta batez ere hiribilduetara alde egin daitezela galaraziz. Azkenik, mendi-ustiaketen kontrola ziurtatu zuten, eta XIV. mendean mendi horiek asko birbaloratu zirenez, diru-sarrera iturri oparo bihurtu ziren.

Laburbilduz, Arriagako Kofradiaren desegiteak ez zuen ekarri Arabako nobleziaren etsipena, erregearen iritzi ona eskuratzeko aurrekaria baizik, aipaturiko mozkinak lortzeko asmotan, Kofradia kontrolatzen zuten *“kofradia-kide nagusien”* berehalako indartzea ekarri.

Arriagako Aktak zehazten duenaren arabera, Kofradia-kideek Alfonso XI.ari honakoa eman zitoten:

«la tierra de Álava que oviésemos ende el sennorio e fuesse regalenga e la pusieron en la corona de los nuestros regnos e para nos e para los que regnassen después de nos en Castiella e en León. Et renunciaron e se partieron de nunca auer confradía nin ayuntamiento en el campo de Arriaga nin en otro lugar ninguno a voz de confradía nin que se llamen confrades. Et renunciaron fuero e uso e costumbre que auían en esta razón para agora e para siempre jamás»⁴.

Kofradiaren eta bere gobernu-tresna ziren Arriagako Batzarren behin betiko desagerpena ez zen antzua gertatu, Kofradiaren jaun nagusientzat behintzat, haien indarra gehitu egin baitzen Arabako gizartearen aurrean. Zehazki, eta beste ikuspegi batetik, 1332ko Akta *«gure Araba lurraldearen berezitasun eta askatasun askoren iturria»* da (M. Portilla). XVIII. mende amaieran J.J. de Landázurik defendatutako *“itunaren aldeko”* jarrerekin loturik dagoen bideari jarraituz, beste egile batek honakoa azpimarratu du: Kofradia izan dela *«lurraldeari iraupena eta kohesio politikoa ematen dion faktorea»* eta 1332. urtetik aurrera, desagertu ondoren, arabarren pentsamendu politikoaren *«osagai mitiko»* bihurtu zela (G. Monreal Zía). Iritzi hauen aurrean, gogoratu behar ditugu besteko zenbait datu labur eta objektibo batzuk. Esan dudana bezala,

1332ko udaberritik aurrera, Araba Gaztela erresuman sartua zen osoki. Alfonso XI.ak lurraldearen justizia-administrazioa hartu zuen bere gain –horretarako handiki eta arabar alkateak izendatu zituen–, baieta Kofradiaren jaunak ordura arte jasotzen zuen «*foruzerga*» jasotzeko eskubidea ere. Horrela bada, Arabako lurralde osoan ez idatzia eta ohiturazko zuzenbidearen orde, Errege-Forua edo Legeen Forua ezarri zen. Ikuspuntu politiko-administratibotik, Arabak Ebroz Beste Aldea deituriko lurraldearen parte hartu zuen, Gaztelako Merindade Nagusiaren barruan.

Arriagako Batzarrak, nahiz eta garrantzitsuenak eta historikoki esanguratsuenak izan, ez ziren bakarrak izan Arabako lurraldean. Baziren ohiturak zuzendutako eskualdeko batzar ugari edo herri kontzeju ugari, baina ia ez dugu horiei buruzko agiri idatzirik, Erdi Aroari dagokionez behientzat. Batzar horietan, funtsean, baso-erabilerarekin eta guztien larreekin lotutako arazoak konpontzeaz arduratzen ziren. Aipatzekoak dira, adibidez, Ruzábaleko batzarra, Belandia, Lendoñobeiti, Lendoñogoiti eta Mendeika herri-kontzejuez osatuta; Ordunteko batzarra, zeinaren partaide Soxoguti, Retes Tudela, Santa Koloma eta Mendieta ziren; Armuruko batzarra, Amurrio, Larrinbe, Saratxo, Etxegoen eta Olabazar kontzejuak biltzen zituena; Santo Tomás de Amondon, Lezamako baselizan, Lekamaña, Lezama, Astobitza eta Baranbioko kontzejuak biltzen ziren; Arrastaria, Murgia, Gaubeako batzarrak etab.

Lurralde-zati murriztuetan kokaturik egoteagatik txikiak deitu ditzakegun batzar horien guztien artean, aipatzekoak dira garai oroitezinetatik «*Saraube Zelaian*», Amurrio ondoan, biltzen zirenak Aiara aldeko lurraldeko gobernatzeko. 1373. urtea baino lehen Aiarako lurraldea ez idatzizko ohiturazko eta irizpidezko forua zeukan, Fernán Pérez de Ayalak urte horretan emandako foruaren Atarian adierazten den bezala:

«*Por quanto la tierra e señorío de Ayala es antiguo, ca el señor la pobló e la aforó de los fueros que le pareció por los cuales siempre se governaron sin haver apelación para ante los Reyes de Castilla,*



nin hay escrivano, nin demanda por escrito, salvo que si el señor entendiera que en algunas cosas non hay buen fuero, el señor, ayuntada la tierra toda, e los cinco alcaldes puedan emendar los dichos fueros e tirar un fuero e poner otro, e los alcaldes escogerlos la tierra e confirmarlos el señor, si ve que son pertenecientes»⁵.

1373ko foru idatziak 95 kapitulu ditu; hauetariko 15 Errege-foruan iradokitzen dira literalki, eta gainerako 80ek Aiarako lurraldeko ohiturazko zuzentza biltzen dute.

Aiarako jaunek edo hauen ordezkariak zuzentzen zituzten Saraubeko batzarrak, 1841. urtera arte bildu zirenak. Batzar horietan hautatu egiten zituzten lurraldearen gobernuaz arduratuko ziren kargudunak, eta ondoren Arespalditzako Santa Maria Elizan karguak zin egiten zituzten. Aiara lurraldea, administrazioari dagokionez, bost koadrilatan banaturik zegoen —Lezama, Amurrio, Sopeña, Llanten

eta Okondo—, eta hauetariko bakoitzak bere alkatea zuen:

«Que el señor estando en la Confradía ayuntada en Saraube, e la dicha Confradía con el señor, que pongan cinco alcaldes hombres fijos dalgo, e que sea el uno de ellos e alcalde mayor, el abad de Quejana, e que esta alcaldía que le non pueda ser tirada en su vida, salvo si el alcalde ficiere cosa porque el señor e la junta, estando ajuntados en Saraube, fallaren que fizo cosa porque la meresció perder»⁶.

JURGOAK ETA ERMANDADEAK

Nahiz eta Arabako lurraldean Erdi Aroan “batzar tradizio” estimagarria izan, ezin da jarraitu XV. mende erdian Arabako Probintzi Ermandadearen ordezkaritza- eta politika-adierazpen handiena den Biltzar Nagusien behin betiko jaiotzera eramaten gaituen iraupenaren prozesua. Arriagako Batzarren eta Arabako Bitzar Nagusien arteko jarraipenak, zenbait autorek adierazitakoak, ez du inolako oinarri historikorik. 1332. urtetik aurrera Arabako lurralde ia osoa Gaztela erresuman integraturik zegoen, Guardia, Labraza eta Bernedo izan ezik, 1461era arte Nafarroako subiranotasunaren azpian jarraitu baitzuten. XIV. mendearen bigarren erditik aurrera, bi prozesu batera jarri ziren abian, nahiz eta kontrakoak izan: bata, erresuma zenbait jaurgo partikularretan banatzearen aldeko eta, bestea, hiribilduak, jaurgoak eta errege-lurraldeak biltzearen aldekoa; azken prozesu honen ondorioz, zenbait oker gertatu ondoren, Ermandade Probintziala sortuko da eta, beraz, Arabako Biltzar Nagusiak.

1332. urtean Arabako kofradia-kideek honako promesa lortu zuten Alfonso XI.a erregearengatik: errelengoari utzitako lurraldea inoiz ez ziotela inorenganatuko.

«que non diéssemos la dicha tierra de Álava nin la enagenássemos a ninguna villa nin a otro ninguno mas que finque para siempre real et en la Corona de los nuestros regnos de Castiella et de León»⁷.

Egoera hori ez zen aldatu hogeita hamar urte baino gehiagotan, honako salbuespen hauek izan ezik: Oto Goien eta Oto Barren, Alfonso XI.ak

Juan Hurtado de Mendozari eman zizkionak; eta Pedro I.ak Pedro González de Mendozari emandako jaurerriak –Domaikia eta Ariniz- eta Fernán Pérez de Ayalari emandakoak –Kuartangoko Harana-. 1366an, Pedro I.a eta Enrique de Trastámara anaiordearen arteko gerra zibila hasi zenean, Arabako lurralde ia osoak errelengokoa izaten jarraitzen zuen, goian aipatutako eta honako salbuespen hauek salbu: Mendoza-Mendibil, Hurtado de Mendoza etxeko jaurgoari zegokiona; Gebara, izen bereko leinuarena zena; Valderejoko harana, 1379ra arte Bizkaiko jaunena zena, eta Aiarako jaurerria. 1369an, Enrique de Trastámarak gerra irabazi eta Gaztelako tronua eskuratu zuzenean, gerran laguntza eman zioten nobleei eskertzeko, haiei kontzesio handiak eskaintzeko politikari ekin zion, eta berehalako oinordekoek politika berberarekin jarraituko zuten. *«Enrikeren mesede»* famatuak dira hauek, zeinen bidez hasten baita Gaztelako jaurgoen eratze-prozesu izugarria. Prozesu honetan nobleziak feudalismoaren krisiari aurre egin zion, errentak berriz ezarri zituen eta bere klase sozialaren nagusitasuna indartu zuen. Arabako kasua ondo baino hobeto egokitzen da interpretazio orokor honetara.

Izan ere, garai batean “kofradia-kide nagusi” izandako Ayala, Mendoza, Hurtado de Mendoza, Rojas, Manrique, Gaona, Abendaño, etab.eko leinuak *«noblezia berria»* edo *«noblezia berritua»* izenekoaren buru ditugu, eta hainbat noble titulu eta jaurgo berenganatzeaz gain, eragin handia ere lortu zuten Gaztelako Gortean, non garrantzi politiko handiko karguak bete zituzten. Leinu hauek, batez ere XIV. mende erdian, jaurerri asko hartu zituzten Arabako lurraldean; horrela bada, Erdi Aroaren amaieran, Araba osoa, Gasteizeko eskualdea izan ezik, hau da, Arabako lurraldearen %80, nobleziaren eskuetara itzulia zen, jaunen agintepean zegoen berriz ere. Baliabide bakarra ez bazen ere, jurisdikzio-botereaz baliatu zen Arabako Noblezia eta 1332. urteaz geroztik itzalean zegoen noblezia honek diru-sarrerara iturria berreskuratu zuen, aurreko errenten beherakadari aurrea emanez.

Bibliografia ugari dugu gaur egun “ermandadeen mugimendua” izenekoan Arabak izan duen partaidetzari buruz, nahiz eta oraindik gutxiegi izan, gaia oso konplexu eta erakargarria bada ere, beste



Infantearen lurraldeko V. Dukearen hilobia apaindu omen zuen armarrria. Duke hori 1601. urtean hil zen. Mendozako famili horren Kaperañ izan zuten armarrri hori. Mendozako Heraldika Museoa (Araba). Foto Quintas.



Burgoseko Rojakoen leinukoa izan daitekeen armarrria. Familia hori Araban izan ziren XIV. mendetik aurrera. Mendozako Heraldika Museoa (Araba). Foto Quintas.



Basabeko Dorretik ekarritako armarrria. Rojas eta Gaona familiena da. Mendozako Heraldika Museoa (Araba). Foto Quintas.



Basabe Dorretik ekarritako armarrria. García de Arce eta Cabeza de Vaca familiena da (Dorreaken Jauna). Mendozako Heraldika Museoa (Araba). Foto Quintas.

hausnarketa batzuk eskatzen baititu. Ermandadea, hiribilduak eta lekuak osatzeko eta elkartzeko asmatutako mugimendua izanik, errotze handiko erakundea da euskal lurraldean. Mugimendu horretan islatzen da, ohiz kanpoko indarrarekin, Gaztelako Koroan izandako fenomeno berezia Beheko Erdi Araoan. Herri-kontzejuen aliantzak –edo hobeto esanda, herri-kontzeju horiek kontrolatzen zituzten Oligarkienak– haien arteko solidaritate garbia adierazten digute, haien interesak eta botere feudalaren berezko egitura defendatzeko.

Ermandade-mugimendu honi dagokionez, bi etapa oso ezberdin bereizten dira Arabaren parte-hartzean. Bi etapa horien arteko muga XIV. mende erdia jarri dezakegu. Lehenengoan, Gasteiz eta Arabako beste hiribildu batzuk XIII. mendetik Gaztelako herri-kontzejuak osatzen zituzten ermandadeen partaide izan ziren. Ermandade horiek errege-agintearen ahulaldian sortu ziren, Sancho errege- semeak aitaren, Alfonso X.aren, aurka eta gutxiengoek Fernando IV.aren eta Alfonso XI.aren aurka piztutako matxinadaren ondorioz. Giro hau dela medio, herri-kontzejuak nolabaiteko kontzientzia politikoa berenganatzen dute eta, haatik, batu egiten dira foruak eta pribilegioak defendatzeko. Ermandadeek, aldi berean, defendatzeko zenbait mekanismo jartzen dituzte abian, herri-desordenuari aurre egin, justizia bermatu eta, batez ere, noblezia feudalaren gehiegikeriak edo «*malferrias*» delakoak gainditzeko xedez.

Lehen kontzeju-ermandade orokorra Burgosen izenpetu zen 1282. urtean, 30 herri-kontzeju osaturik, eta horietako hiru Arabakoak dira: Gasteiz, Agurain eta Buradon Gatzaga. Alfonso X.a aitaren aurka matxinatu zen aldian sortu zen. Honako hauek dira sorrera horren arrazoiak:

«muchos desafueros e muchos danos e muchas fuerças e muertes e presones e despechamientos sin sser oydos e desonrras e otras muchas cosas sin guisa, que eran... contra ffuero e a grand danno de todos los reynos»⁸.

Ermandade honek gutxi iraun zuen eta, eredu hori jarraituz sortutako beste batzuekin gertatu zen bezala, Sancho IV.ak balio gabe utzi zuen erregea zenean, 1284. urtearen amaieran.

Sancho IV.aren oinordekoaren garaian, Fernando IV.aren adingabetasunean, beste ermandade batzuk sortu ziren. 1295eko udan hiru ermandade nagusi eratu ziren: Gaztelako herri-kontzejuetakoa, León eta Galiziakoa eta Toledoko artzapezpikutegiarena eta Gaztelako Extremadurarena. Hiru horiek Valladolideko Gorteetan berretsi ziren urte berean. Gaztelako ermandadean Arabako honako hiribildu hauek hartu zuten parte: Gesaltza Añana, Buradon Gesaltza, Trebiño, Gasteiz, Argantzón, Santikurutze Kanpezu, Bastida, Urizaharra, Antoñana, Korres eta Agurain.

1296an beste bi ermandade sortu ziren: «Gaztelako itsasaldeko hiribilduetako ermandadea» eta bestea Haron eratu. Lehenengoan, Gasteizeko ermandadea Santander, Laredo, Castro Urdiales, Bermeo, Getaria, Donostia eta Hondarribiarekin batu egin zen, merkataritza-interesak defendatzeko batez ere. Bigarrenean, Miranda de Ebroarekin batera, Errioxako sei hiribilduk hartzen dute parte –Logroño, Nájera, Santo Domingo de la Calzada, Haro, Briones eta Abalos–, eta Arabako beste hamaika, 1295ean Gaztelako herri-kontzejuen ermandade nagusian sartu izan ziren guztiak, hain zuzen ere. Bigarren ermandade hau, ermandade nagusiaren ibilbide laburrean ikusitako akatsak bidertzeko sortu zuten, eta aldi berean, honako hauek mugatzeko:

«muchas menguas e males e danos e muertes de omnes e robos que auemos rrecebidos ssin rrasón e ssin derecho de algunos omnes de la tierra»⁹.

Beraz, Agurain, Logroño, Santo Domingo de la Calzada eta Gesaltza Añanako eskualde zabala gaizkileengandik zaintzea zen azken helburua.

1315ean, Alfonso XI.aren adingabetasunean, garrantzi handiko ermandade nagusia eratu zen, Gaztela, Leon, Galizia, Toledo eta Extremadurako ehun bat herri-kontzeju osatuta. Ermandade horretan Gasteiz, Trebiño, Añana Gesaltza, Agurain, Urizaharra, Portilla de Ilda eta Berantevilla ziren Arabako ordezkariak. Alfonsoren adingabetasuna dela-eta sortutako botere gehiegikeriaren edo mota guztietako arazoan ondorioz, botere publikoak eta justiziak porrot egin zuten, eta horiek izan ziren ermandadearen sorrera justifikatzeko

erabilitako argudioak. Alfonso XI.ak adin-nagusitasuna izan zuenean, ermandadea bertan behera utzi zuen, beste ermandadeekin egin zuen bezala, 1325eko Valladolideko Gorteetan, agian ermandade horiek lor zezaketen indarraz beldur zelako eta, batez ere, bere proiektu politikoaren aurkakoak zirelako: monarkia sendotzea, parte-hartze sendoa eta zentralizazio administratiboa helburu zuen proiektua.

Garrantzitsua da aipatzea, Arabako ermandade probintzialaren eraketari dagokionez, Arabako lurraldearen egituraketan pixkanakako aurrerapausoak ematen diren neurrian, aipatutako ermandadeak baino garrantzi handiagoko beste toki-ermandade sorta sortu zela, XIII. mende bukaeratik dokumentatuak daudenak, haiei buruz informazio gutxi badaukagu ere. 1293an Agurain, Eulate, Araratxe eta Aguraindik eta Lizarrako bidean dauden Ameskoen zazpi hiribilduen herri-kontzejuek ermandade batean eratzea erabaki zuten. Ermandade horren helburua honakoa lortzea zen:

«todos seamos más defendidos et más anparados de muchos males et dannos que solíamos recibir vos et nos»¹⁰.

Urte horretako apirilaren ermandade-agiria sinatu zen Agurain, Kontrasta eta Haraneko herri-kontseilu guztien artean. Eskualdean aberatsek eta beste jaun batzuek batez ere abereen jabe, salerosle eta merkatariei egiten zizkieten kalte eta lapurretengatik defendatzea da helburua. 1347an eratutako Erribera eta Lakozmonteko ermandadeari buruz, eta 1417an Ariniz eta Zigoitikoari buruz baditugu agiriak.

Zorionez, informazio gehiago dugu Egilatzeko ermandadeari buruz. Ermandadea behintzat urtean behin biltzen zen Done Mikelen egunean Erdoñanako Donemiliaga elizan. Ezagunak dira ermandadearen ordenantzak, 1360. urtean idatzitakoak. Urte horretan dagoeneko ordenantza horiek “zaharrak” direla esaten da eta, haatik, ermandadea zaharragoa dela pentsa dezakegu. Honen lurralde-mugak hamaika herri zituen: Axpuru, Narbaxa, Zuhatzu, Luzuriaga, Galarreta eta Erdoñana, “beheko” koadrila osatzen zutenak, eta Albeiz, Okondogoiena, Egilatz, Bikuña, Munain eta Mezkoa, “goiko” koadrila osatuz. Herri bakoitzak diputatu bat bidaltzen zuen

ermandadeen biltzarretara, eta Prokuradore Nagusia zen biltzar horien buru. Ermandadearen partaide izateko, Ordenantzek finkatzen zutenaren arabera, herrian bizi behar zuten eta handiki-ezkutariak izan behar ziren

«de sangre e posesión... de buena vida, reputación e costumbres... que sean christianos biejos de sangre linpia, sin que sean jodíos nin moros»¹¹.

Egilatzeko ermandadea

«una de las qatorse hermandades que antiguamente fazían la provincia de Álava»¹²,

1360. urteko ordenantzetan jartzen duenaren arabera. Aipatu nahi dut XIV. mendearen bigarren erdian Araba bakar baten pertzepzio argia zutela, eta probintziatzat hartzen dute dagoeneko, hiribildu eta lurralde irekietan sortutako zenbait ermandadez osatutakoa; gainera ez dute nobleen eta erregeen lurraldeen arteko desberdintasunik egiten. Toki-ermandadeen kopurua ez zen ondoren aldatu, eta 1449an hamalau izaten jarraitzen zuten.

XIV. mende erditik aurrera, «alderdien arteko borroka» deiturikoek eragin askona izan zuten euskal gizarte feudalean. Hori depresio orokorraren ugaltzarekin batera gertatu zen. Depresio horren ondorioz, jaunen klaseak era guztietako prozedurak, baita indarkeria ere, erabili behar izan zuen: jaunen errenten jaitsierari aurre egiteko metodorik arruntena, ez bakarra, bandidaiaz baliatzean zetzan. Aipatu beharra dugu errenten jaitsiera agian ez zela askotan baieztatu den bezain larria izan. Noblezia feudalaren presioa areagotzeak herrian zenbait motako erantzunak sortu zituen: beste herri batzuen sorrera, jaunen aurkako matxinadak edo, besterik gabe, lurraldeetatik ihes egitea edo hiribilduetan finkatzea. Hala ere, jaunen kontra borrokatzeko tresnarik eraginkorrena ermandadeak ziren. Ermandade horien bidez ordenu publikoa zaintzea eta bandidaiekin eta boteretsuen gehiegikeriekin amaitzea lortu nahi zuten. Euskal ermandadeak sortzeko prozesua, paraleloa hiru probintzietan, Beheko Erdi Aroaren krisialdi orokorraren barruan kokatu behar dugu. Gainera ez dugu ahaztu behar Trastámarako



Enrique II.aren hasierako urteetatik Gaztelako erresuma osoan eragina duen fenomeno baten erakusgarri dela. Zein izan zen fenomeno horren eragina Arabako lurraldean?

XIV. eta XV. mendeetan Arabak eta Gipuzkoak Nafarroako Erresumarekin zeukaten muga oso gatazkatsua zen. Gatazka horren lekuko mugari emandako izen adierazkorra dugu: «*gaizkileen muga*». Nafar, gipuzkoar, arabarrek osatutako bidelapur talde ugari ibiltzen zen mugan, askotan noble boteretsuen zerbitzuan, eta haien babestoki nagusiak Aralar eta Urbasako mendizerrak ziren. Talde hauek inolako bereizketarik egin gabe jokatzzen zuten, Nafarroako nahiz Gaztelako lurraldean, eta haien jarduerak gatazka ugari sortzen zituzten bi erresuma horien artean. Delituzko ekintza horiekin guztiekin bukatzeko asmoz eta Gaztelako Pedro I.aren egoera larria aprobetxatuz, Pedro I.a gerra zibila behin betiko galtzeko zorian –eta Montielen bititza ere– baitzegoen, Nafarroako Carlos II.a, une horretan Gipuzkoako eta Arabako erregea ere zena, ermandade bat egiteko erabakia hartu zuen, gaizkileen erasoak jaso zituzten arabar, gipuzkoar eta nafarrak bere barruan biltzeko. Ermandade horren

eratze-agiria Gasteizko Done Fraisku komentuan sinatu zuten 1369ko martxoaren 12an, eta sei urte geroago berriro egin zuten. Ermandadea guzti hauen aurka zegoen zuzendurik:

«*anduvieren robando, forzando o quemando o matando o causando otros maleficios*»¹³.

Ordenantzek zigor gogorrek eta prozedura–lege oso azkarrak ezartzen zituzten gaizkileen aurka. Ermandadeak armada bildu zezakeen, 1820 gudari arte, eta hiribildu bakoitzak, biztanle kopuruaren arabera, ekartzen zituen gudari horiek. Gasteiz eta Agurain ziren gizon gehien jartzen zituztenak, 150 eta 100 gudari hurrenez hurren. Carlos II.ak ermandadea sortzeko zuen arrazoia ez zen soilik mugako eremuetan eta okerrunetan ordenu publikoa ziurtatzeko beharra, baliabide militar garrantzitsua ere lortzea bazen helburua, Nafarroak Gaztela erresumari lehentxeago kendu zizkion eskualdeen kontrola ziurtatzeko. 1388an, Gaztelak lehengo mugak berreskuratu zituenean, Juan I.ak, Enrique II.aren seme eta ordezkokoak, eta Carlos II.ak elkar ikusi zuten Kalagorri otsailaren 9an, bakoitzak besteari erresuman ezkutatzzen ziren gaizkileak emango zizkiola hitzartu zuten, eta zenbait hiribilduri



Aralar eta Urbasa Mendizerren arteko muga honetan gertatu ziren Jaun eta Errege eta gaizkileen arteko borroak. Borroka honien ondorioz batez ere erabaki zuten Arabako Ermandade Nagusia sortzea. Foto Quintas.

asilo-eskubidea kendu zieten gaizkileei babesa emateagatik, adibidez Alfaro Gaztelan eta Corella Nafarroan.

Hala ere, errege-ekimen guzti hauek ez omen ziren aski mugako gatazkak gainditzeko eta gaizkileen ekintzekin amaitzeko. 1412an Gaztelako Juan II.ak eta Nafarroako Carlos III.ak honako debekua berretsi zuten: inork ezin pasatzea erresuma batetik bestera delituak egiteko. Eta horrela gertatuko balitz, honako hau izango litzateke erantzulea:

«*querellado a los alcaldes e jueces de la hermandad del reyno a do fue fecho el maleficio*»¹⁴,

Eta haiek prozesatu eta kondenatuko lukete zorrotasun handienarekin.

ARABAKO ERMANDADE PROBINTZIALA

Gasteiz, Trebiño eta Agurainek eskatuta eratu zen Arabako benetako ermandadea. Honen ordenantzak Juan II.ak onestu zituen Valladoliden, 1417ko otsailaren 6an, zenbait aldaketa sartu ondoren

hiru hiribilduek aurkeztutako proposamenean. Ermandade horren eraketa modu honetan justifikatzen da:

«*en esas dichas villas e sus tierra e en las comarcas de ellas se habían cometido e perpetrado muchos e enormes e graves delitos, asi de noche como de dia, robando e furtando, e pidiendo pan, vino e tomando viandas en poblado e en despoblado e desafiando asin razón e matando a los inocentes sin culpa*»¹⁵.

Juan II.ak aitortu zuen ermandadearen nolabaiteko lege-jurisdikzioa eta jurisdikzio penala. Lurraldeari dagokionez, ordenantzek honakoa agintzen dute:

«*para bien gobernar e guardar la dicha Hermandad*»¹⁶

beharrezkoa zela honako hauek ermandadean sartzea: Argantzón, Langraiz Oka, Olabari, Arinezko ermandadea eta Zigoitia, Zuia, Ubarrundia, Legutiano, Egilatz, Barrundia, Ganboa, Iruraitz, Arraia, Araia, Kontrasta, Urizaharra eta

«*los otros logares que son en comedio dellos*»¹⁷.

Juan II.ak xedatutakoaren arabera, hiru hiribildu fundatzaileek eskatu ahal zieten aipaturiko beste hiribilduei ermandadean sartzeko, eta eskaintzari uko eginez gero, ez liekete emango inolako laguntzarik honako xede honetarako:

«seguir los malhechores nin a facer sobre ello ninguna diligencia»¹⁸.

Ermandadearen eragile exekutiboek, eskumen kriminalaren arduradunak, Ermandadearen alkateak dira. Alkate horiek prokuradoreek hautatu eta izendatzen zituzten honako hauen artean:

«omes buenos llanos e abonados e comunes sin sospecha, tales que teman a Dios e al Rey e amen de facer justicia»¹⁹.

Bazeuden ere bi komisari, zeinen betebeharrak hauek ziren:

«veer e corregir a los alcaldes que fueren puestos en la dicha hermandat si non fecieren complimiento de derecho e de justicia a los querellosos en la manera que devieren»²⁰.

Nahiz eta 1417ko ordenantzetan ez arautu, ermandadeak bazituen ere Biltzar Nagusiak, eta honako hauek joaten ziren haietara:

«alcaldes, comisarios e procuradores de las çibdades, villas e logares de la Hermandad de Álava»²¹,

Jokanon 1457. urteko azaroaren 21ean egindakoetan jartzen duenaren arabera.

Ezaguna den bezala, gizarte-gatazkak gero eta handiagoak ziren Arabako lurraldean XV. mendean. Jaunen presioaren gehitzearekin zeuden lotuta bereziki, dela hiribilduetan, gobernuaren organoak kontrolatzen saiatzen baitira, dela landan, non zergen gehitzea eta tradiziozko erroldak, “ezarpen berrien” eskakizunak edo herri-ondasunen usurpazioa maiz gertatzen diren; eta horiek ez ziren nobleziak errentak gehitzeko erabiltzen dituen baliabide bakarrak. Ondarea eta diru-sarrerak gehitzeko nobleek zeukaten neurrigabeko gogoia eta, alderditar Lope García de Salazarren hitzetan, “nork balio duen gehiago” esieran biltzen den ideal hori betetzeko nahiak, sarritan, nobleen arteko indarrezko aurkaketak sortaraztera eramaten dituzte. Jende arruntak,

nekazariak eta hiribilduetako biztanleek, nobleziaren gehiegikeriaren aurka erreakzionatu zuten, nekazarien matxinaden eta jaunen kontrako mugimenduen bidez, ermandadeak abian jarri.

1417ko ermandadea ez omen zen gai izan Arabako lurraldean bakea jartzeko eta gaizkile feudalen ekintzekin amaitzeko. 1417ko ermandadearen eraginkortasun ezaren adierazgarri garbia Juan II.aren kronikan dugu, alderdi edo fakzio batzuen sorreraz ari denean; alderdi edo fakzio horiek ermandadeak bezala definitu zituen. Zenbait autorek ermandade hauekin identifikatzen dute 1417ko ermandadea. Ermandade hitzaren balio polisemikoaren balorazioa eta hauek agertzen diren kroniken testuingurua kontuan hartuz gero, pentsa omen herri-ermandade horiek ez dutela zerikusirik 1417koarekin. Azpimarratu behar da herri-ermandadeak, nobleziaren aurkakoak guztiz, 1417ko ermandadeak berez bete behar zuen zeregina betetzen saiatu zirela, ermandade horrek ez zuelako zeregin hori betetzen. Ikus ditzagun kroniken datuak. 1442an Araban eratu ziren

«algunas hermandades de mucha gente popular, por causa del Conde de Castañeda y de Iñigo López de Mendoza, que eran entre sí diferentes y discordes, sobre ciertos vasallos de aquella tierra; pero no duraron mucho, y luego fueron amansadas y sosegadas»²².

Hurrengo urtean, herri-ermandade horiek, erregearen oniritzia zutela,

«comenzaron a derribar algunas casas de caballeros, y hacer otras cosas no debidas, entre las cuales cercaron a Pedro López de Ayala... en una villa suya llamada Salvatierra»²³.

Honi laguntzeko, lehengusua, Pedro Fernández de Velasco kondea, etorri zen; eta guda-oste handi baten buruan, setio jaso eta erreprezio gogorra egin zuen:

«E como las hermandades que tenían cercado a Pedro López de Ayala supieron la venida del Conde, partiéronse dende, y el Conde los siguió e mató y prendió muchos dellos, e derríbales las casas e hizoles tan grandes daños, que ovieron bien la paga de su merescimiento; e así las hermandades quedaron abatidas, que dende adelante no pudieron permanecer»²⁴.

Argi dago kronistek aipatutako herri-ermandadeek ez zutela iraun, baina 1417ko ermandadea aurrera joan zen, nahiz eta bere helburuak lortzeko gai ez izan. Horixe egiaztatzen du Gasteizko Juan Martínez de Álava batxilerrak egindako eta Juan II.ari bidalitako txostenak. Honakoa dio txosten horrek:

«en la dicha çibdad e su jurisdición se ha cometido muchas muertes e malefícios e fechos perpectados e otros delictos»²⁵

eta *«malechores e delinquentes quedan syn pena»*,

babes ona aurkitzen ez baitute eskualdeko nobleen jaurerrietan, eta lortzen zuten Gasteizko auzitegietan epaituak ez izatea. 1448an, egoera hori aldatzeko, haien etxeetan eta jaurerrietan gaizkileak ez babesteko eta Gasteizko alkate eta epaileengana eramateko agindu zien Juan II.ak nobleei, eta horrela bada,

«prozeder contra ellos e faser todo conplimiento de justícia»²⁶.

1449an Juan II.a eskualdeko ermandade handi bat abian jartzen saiatu zen. Horren lurralde-eremua Bizkaia, Gipuzkoa, Araba, Burgoseko iparraldea eta Kantabria zein Errioxako zati batek osatuko zuten. Helburua baketa eta ordenua lortzea zen,

«fechas fuerças, ni robos, ni otros males, ni dañnos, ni desaguisados algunos syn rasón e syn derecho por persona ni personas algunas»²⁷,

egin ditzatela galarazten saiaturaz. Harrigarria bada ere, Gasteiz, Juan II.ak eskatu bazuen ere, ermandadearen partaide izatearen aurka zegoen,

«por miedo a ello, tras excusas non devidas e non acatando lo que cumple a servicio de Dios e mio e a execución de la mi justicia e a bien de la cosa pública de mis reynos»²⁸.

Juan II.aren erregealdian ermandadeek gorakada handia izan zuten Gaztela osoan, nobleziaren gehiegikerien aurkako tresnak ziren, baita ordenu publikoa mantentzeko, gaizkileak zigortzeko eta justizia gordetzeko ere. Testuinguru orokor horretan kokatu behar ditugu 1417ko eta 1449ko ermandadeak. Bigarren honi buruz informazio gutxi heldu zaigu, eraketa-agiri batzuk soilik, seguru aski ez zen ondo

finkatu. 1417koari dagokionez, ezegonkorra zela eta ez zituela helburuak betetzen aipatu beharra dugu; hala ere, nahiko nabaria da 1458ko Arabako behin betiko ermandade probintzialari bidea ireki ziola.

Juan II.ak bezala, bere seme eta oinordeko Enrique IV.ak ermandadeen sorrerari lagundu zion. 1457ko udaberriko hasierako egunetan, Enrique IV.a, Gipuzkoara zihoala, informazio zehatza jaso zuen Gasteizen 1417ko ermandadearen funtzionamenduaz, baita funtzionamenduan ikusitako akatsetaz ere. Une horretan sortzen da, Enrique IV.ak bultzatuta, ermandadea berrantolatzekeo ideia, eraginkortasuna hobetzeko asmoz. Ermandade berriaren ordenantzak

«procuradores de las dichas cibdades e villas e logares de tierra de Álava»²⁹

egin zituzten, eta Errege-Kontseiluak aztertu ondoren, Enrique IV.ak onetsi zituen Madrilan, 1458ko martxoaren 22an. Araban oraindik


«robos e fuerzas e quemas e muertes e feridas de omes e escesos e delitos e maleficios que... eran fechos e cometidos e se facían e cometían de cada día por algunas personas, malhechores, acotados e encartados e lacayos e otras personas»³⁰,

egiten zituztela dio agiriaren hitzaurreak; horrexegatik Enrique IV.ak ermandade bat egitea agindu zuen:

«Hermandad de las dichas cibdades e villas e logares de la dicha tierra de Álava e vecinos e moradores dellas para las cosas que cumple a mi servicio e a execución de la mi justicia e a pro e bien común e paz e sosiego de la dicha tierra de Álava»³¹.

1458ko ordenantzak ez dira originaltasunagatik nabarmentzen; Juan II.ak 1417an onetsi zituen ordenantzak bezalakoak ziren, zeinetatik 17. eta 34. artikulua kendu baitzituzten. Lehenengo artikulua handiki ibiltariak ermandadeko alkateen deialdietara joateko beharra zutela aipatzen zuen; bigarrenak, berriz, ermandadearentzako muga egokienak diseinatzen zituen. Beraz, bistakoa da 1458ko ermandadea 1417koaren berriraketa edo berrespena dela, bien artean jarraipenik izan gabe. Oraingoa iraunkorra bezala sortzen da, etorkizunari begiraturaz:

Araba Probintziako Ordenantzak, Enrique IV.ak 1458ko apirilaren 22an berretsitaokak.
Lurralde Historikoaren Artxiboa. Sign: DH-237-1. Foto Quintas.



« ... *quela dicha Hermandad de Álava quede e permanezca e non sea corrompida ni desatada ...* »³².

Puntu horri garrantzia emanaz, baina indarra gehitzeko asmoz ere gaizkileen arte borrokan, Enrique IV.ak honakoa agindu zuen:

« *los alcaldes e procuradores e otros oficiales e otras personas qualesquier de las hermandades de Vizcaya e Guipúzcoa e las Encartaciones e de tierra de Mena, e a otros qualesquier mis corregidores e justicias... den todo el favor e ayuda que compliere e menester fuere para que la dicha hermandad sea guardada e conservada e para que no sea corrompida ni desfecha, e para las otras cosas complideras a mi servicio e a ejecución de la mi justicia* »³³.

Informazio eskasa heldu zaigu 1458an agertutako ermandadearen lehen urteetako funtzionamenduari dagokionez. Aguraingo artxiboetatik eta, neurri txikiago batean, Zalduondotik, dator informazio gutxi hori. Lau Biltzar Nagusietara egindako deialdiak ezagutzen ditugu: 1458ko martxoaren 23koa, Gasteizko Done Fraisku komentuan; 1458ko maiatzaren 26koa, Arangizen; 1461eko martxoaren 7koa, Caicedo-Yuson; 1461eko azaroaren 26koa, Arangizen, eta 1462ko maiatzaren 5koa, Gasteizko Done Fraisku komentuan berriro. Biltzar horietan landutako gai nagusia Agurain eta Egilatz ermandadeen artean ermandadeen alkateak izendatzerakoan izandako gorabeherak ziren, hiribildu bakoitzak ermandadeko alkateak eskusibaz izendatzeko eskubidea nahi zuelako. Bestalde, Biltzar Nagusien agintea oso murriztua zela ikus daiteke, Gasteizek eta Agurainek eragin handia baitzuten eta, era berean, ermandadeak indar eskasa zuen eraketa egitean ezarritako helburuak betetzeko.

Emaitzak oso eskasak zirela ikusiz, Enrique IV.ak, egoerari buruz informazio handia zuenez, lau kidez osatutako batzordea izendatu zuen:

« *los doctores Fernand González de Toledo e Diego Martynez de Çamora e los licenciados Pero Alonso de Valdivielso e Juan García de Sancto Domingo* »³⁴,

honako hauek zuzentzeko eta erreformatzeko:

« *las dichas hermandades de Álava con la cibdad de Bitoria e villas de Salvatierra e Miranda e Pancorvo e otras sus adherentes de la dicha hermandad* »³⁵.

Batzordeak, botere handia lortu zuen Enrique IV. arengandik 1463ko maiatzaren 4an. Erregea haien jardueraz arduratu zen zehatz-mehatz, ermandadearen funtzionamendua arautzeko ordenantza idazteko helburuarekin. Gorabehera batzuen ostean, kide bakarra geratu zen batzordean, Pedro Alonso de Valdivielso lizentziaduna, eta Rivabellosan 1463ko urriaren 11n eta 12an egindako bileraren buru izan zen; bilkura horretan ermandadearen 16 prokuradore eta Juan López de Letona, ermandadearen eskribau zintzoa, izan ziren. Egun horietan ordenantza berriak idatzi zituzten –guztira hirurogei–, « *Cuaderno de Leyes y Ordenanzas con que se gobierna la M.N. y M.L. Provincia de Álava* »³⁶ izena dutenak. Izen hori dute, hain zuzen ere, Probintziako legeen funtsezko muina izan direlako lau mendean, nahiz eta epe horretan ermandadearen Biltzar Nagusiek sortutako arauak eta erregeek emandako pribilejio berriak erantsi.

1463ko ermandadearen eraketa edo, hobe esanda, ermandadearen ordenantza berrien idazketa, XV. mendetik aurrera izandako prozesuaren helmuga da, Araban ezegonkortasun soziala handiagoa zenean; dena dela, antzinako aurrerakinak ditu prozesu horrek. 1463ko ordenantzek bestelako botere- eta antolaketa-egitura bat diseinatzeko dute, integratzeko gaitasun handiagorekin, 1417ko ordenantzek (1458an berretsita) erakusten zutena baino handiagoa alegia. Azken buruan, helburu zehatz batzuk betetzeko sortuko tresna indartsua ziren, hots, gaizkileak zigortzeko, ordenu publikoa gordetzeko eta justizia defendatzeko. Ordenantzen sorrera herri eta hiribilduetan bizi ziren nekazari eta nobleziaren arteko elkartzunarekin lotuta dago, nekazari eta noble horiek bat egiten baitzuten Arabako jaun aberatsen presioaren gehikuntzaren eta gehiegikerien aurrean.

Ermandadearen jarduteko lurralde-esparruak, bestalde, Arabako probintziaren esparru bera finkatzen du; probintziaren erabateko itxuraketa XV. mende bukaeran eta hurrengo mendean gertatu zen. Hain zuzen ere, bigarren ordenantzak ermandadea osatzen duten lurralde-entitateak aipatzen dira, hau da, Gasteiz, Agurain, Miranda de Ebro, Pancorbo eta Saya hiribilduak, hogeita sei toki-ermandade, Gasteizko ezkutarien jurisdikzioa eta Donemiliaga eta Araiako Batzarrak. Jatorrizko nukleo horretatik kanpo zeuden Trebiño eta Argantzón. Nukleo horretan aldaketak egin ziren 1481a baino

lehen, ermandadetik honako hauek atera zirenean: Miranda de Ebro, Pancorbo, Villalba de Losa eta Losas de Suso, gaur egun Burgos probintziakoak, eta Errioxako Saja. 1502a baino lehen ermandadean Antoñana, Santikurutze Kanpezu, Lagran, Urizaharra, Bastida, Buradon Gatzaga, Berantevilla, Aramaiona, Laudio, Labraza eta Orozko harana sartu ziren. XVI. mende hasieran Arabak bazuen behin betiko lurralde-itxuraketa, eta aldaketa bakarra izan du ordutik hona, 1568an Orozko harana galdu eta Bizkaiko jaurrerian sartu zenean.

Azkenik, 1463ko ordenantzek zorrozki finkatzen dituzte Biltzar Nagusien bilkurak, osaketa eta eskumenak. Biltzar Nagusiak ermandadearen goreneko gobernu-organoa ziren, eta garrantzi handiko politika- eta legegintza-jarduera dute, bederatzigarren ordenantzak aipatzen duenez:

«Otrosy hordenamos e mandamos que se fagan doss juntas generales en cada año por la dicha hermandad; e que las dichas juntas se fagan una en la cibdad de Bitoria e la otra en el lugar donde se acordare en la dicha junta; e que así se sigan las dichas juntas dende adelante donde por la dicha junta fuere hordenado, e que las dichas juntas no se fagan en otros lugares salvo sy causa justa oviere; e que la una de las dichas juntas se faga en cada un año primero día del mes de mayo, e la otra junta se faga día de Sanct Martín del mes de noviembre, e que en las dichas juntas generales no estén en cada una de ellas más de quinze días»³⁷.

Biltzar Nagusien osaketari dagokionez, hamaikagarren ordenantzak honakoa dio:

«Otrosí hordenamos e mandamos que los concejos e universidades que suelen e han de embiar procuradores a las dichas juntas, que embíen un procurador o doss a las dichas juntas e no más, e que embíen por procuradores a las dichas juntas hombres buenos e de buenas famas e ydóneos e pertenescientes e hombres honrrados e ricos e abonados cada uno de ellos en quantya de quarenta mill maravedís, e que sean hombres de buen desseo e abtoridad porque fagan e hordenen bien las cosas de la dicha junta. E que no embíen

a las dichas juntas por procuradores hombres que ayan sydo e sean malhechores, nin omes aficionados nin parciales a los cavalleros e parientes mayores, nin ombres que tengan de librar en las dichas juntas cosas algunas por sy nin por otros, e que no trayan en almoneda la dicha procuración dizzendo quién yría por menos, segund que fasta aquí algunos han fecho, nin la pongan en renta salvo que embíen los que vieren que son ydonios e pertenescientes para ello. E que no embíen a ningunos por procuradores por ruegos de personas algunas, nin embíen a las personas que lo procuraren que los embíen salvo a los que entendieren que cumple, e que a los tales e non a otros algunos den sus poderes, e que les den el salario que han acostumbrado por los días que fueren e vinieren e estovieren en la dicha junta»³⁸.

Eskumenei dagokionez, aipatu beharra dugu hasieratik bertatik Biltzar Nagusiek ordenantzek finkatutako eskumen-eremua gainditzeko joera zutela; hori dela eta, hamabosgarren ordenantzak honakoa dio:

«Otrosí por quanto algunas vezes en las dichas juntas han fecho e fazen algunas hordenanças que non trayan vino de Navarra nin vaya allá nin a otras partes semejantes, e mandan algunas cosas que non conciernen a los casos de la hermandad nin a la essecución de la justicia nin a aquellas cosas sobre que se fyzo la hermandad, e pone penas grandes e las executan después, e de ello a venido e viene muy grande daño a la dicha hermandad e a los vezinos e moradores de ellas, e por ende hordenamos e mandamos que en las dichas juntas non fagan nin hordenen salvo las cosas tocantes a los casos de la dicha hermandad e a la essecución de la justicia e sobre aquellas cosas que pueden e deven según los quadernos de la dicha hermandad, e que sy otras cosas algunas fizzieren e hordenaren allíende de lo suso dicho que no valga nin sean obedescidas nin cumplidas por la dicha hermandad»³⁹.

Baina, egia esanda, nahiz eta ordenantzek horixe esan, hasieratik Biltzar Nagusiek haientzat finkatutako eskumen-mugak gainditu zituzten. Benetan, 1463tik aurrera, Arabako Ermandade Probintzialaren historia batez ere jatorrizko eskumenei zabalketara, bai kontzesioz, bai erregeen

erabakien bitartez egindakora, murrizten da. Ordenantzek finkatutako eskumen judizial eta administratiboekin batera, beste batzuk agertu ziren: legegintzakoak, adibidez Araba osorako ordenantzak egitea; ekonomikoak, gari-hornidurari eta zubi eta bideen eraikuntza eta

konponketari dagokionez, eta Foru Ogasunaren sorrera ekarriko zuten horiek; militarrek, tropak biltzeko eta zuzkitzeko, etab. Baina hurrengo kapituluan egingo dugu alderdi horien guztien azterketa sakona.

OHARRAK

- ¹ «Garai hartan, Asturias, Las Priomorias —Cangas de Onís aldea—, Liébana, Transmiera, Sopena, Karrantza, Vardulias —orain Gaztela deitzen dena...; Araba Bizkaia, Alaoñ-Aiara⁷ eta Urduña beti bertakoek eduki zituzten».
- ² «Eta batzutan Erregearen semearen bat hartzen zuten Jauntzat; eta batzutan Bizkaiko Jauna; eta batzutan Lara-koa; eta batzuetan “Cameros” izenekoena».
- ³ «Arabako Aitonon Seme guztiak eta Nekazariak Arriagako landan, hau da, betidanik orain arte biltzen ohi diren lekuan, elkaturik daude».
- ⁴ «Jaurerrian zintuzkegun Arabako lurraldeak eta errealengokoak izango lirakeela eta geure erresumen koroan jarri zuten eta guretzat eta Gaztela eta Leon erresumetan gure atzetik goberna lezaketenezat. Eta uko egin zuten eta erabaki zuten Arriaga landa inoiz egon ez dadila ez kofradia ezta udalbatza ere eta bete edozein lekutan ere ez kofradia izena eta kofradia-kide deitzen direnak. Eta orain eta betirako zeuzkaten forua eta erabilera eta ohitura uko egin zituzten».
- ⁵ «Aiara lurraldea eta jaurgoa zaharra direlarik, jaunak jendeztatu zuen eta ongi iruditu zitzaion foruak eman zizkion, haien bidez goberna dadila Gaztelako Erregeengana jo gabe, eta ez dago eskribaurik ezta idatzitako demandarik ere; eta jaunak zenbaitetan foru onik ez dagoela ikusten badu, orduan, lurralde osoa bildurik, eta bost alkateek alda ditzakete esandako foruak, eta foru bat

- kendu edo beste bat jarri, eta alkateak lurraldeak hautatu eta jaunak berretsiko ditu, egokiak direla ikusten badu».
- ⁶ «Jaunak, Sarauben bilduriko Kofradian egonez, eta jaunarekin batera Kofradiak, aitonon seme izandako bost alkate ezar ditzatela, eta horietako bat, Kexaako abadea, alkate nagusia izan dadila, eta inork ezin dezala kendu alkatego hau bizitza osoan, alkateak ez badu gaiztakeriarik egiten eta horregatik jaunak eta batzarrak, Sarauben bildurik, gal dezala epaitzen badute, galtzeko merezimendua izan zuelako».
- ⁷ «esandako Araba lurraldea ez diezaiegun eman ez inolako hiribilduari ezta beste inori ere, baizik eta erreala betirako gera dadila, Gaztela eta Leon gure Erresumaren Koroaren azpian».
- ⁸ «Bidegabekeri asko eta kalte asko, indarkeria, hilketa, atxiloketa eta entzun gabeko auzi asko, desohore eta itxura gabeko beste gauza asko, foruaren kontrakoak eta kaltegarriak erresuma guztientzat... zirenak».
- ⁹ «lurraldeko gizon batzuegandik arrazoirik gabe jaso ditugun urritze, gaitz, kalte hilketak».
- ¹⁰ «Denok defentsa handiagoa eta zuengandik eta gugandik jasotzen genituen gaitz askotatik babes handiagoa edukitzea».
- ¹¹ «odolez eta osasunez..., bizitza, ospe eta ohitura onekoak, juduak edo mairuak ez izatea».

- ¹² «Arabako probintzia osatzen zuten hamalau ermandadeetako bat zen»
- ¹³ «Lapurretan, bortxaketan erreketan, hilketan edo beste edozein okerkeria egiten jarduten zuten guztien aurka»
- ¹⁴ «Erresumako ermandadearen alkate eta epaileen aurrean kereila aurkeztuko lukete, gaiztakeria egin zen lekuan».
- ¹⁵ «Lurraldeko hiribildu horietan eta eskualdeetan delitu asko, gaitz eta larriak egin dira, gauez, nahiz egunez, lapurretak egiten, ogia eta ardoa eskatzen, herrian nahi landan jakiak hartzen, arrazoirik gabe desafiitzen eta errugabek hiltzen kulparik gabe».
- ¹⁶ «Ongi gobernatzeko eta esandako ermandadea babesteko».
- ¹⁷ «haiekin amankomunitaterik dauden leku guztiak»
- ¹⁸ «Gaizkileen atzetik joateko, ezta horri buruzko inolako eginbiderik egiteko ere».
- ¹⁹ «Gizon onak, abonatuak eta erkideak, susmagabekoak, Jainko eta erregearekiko begiruneakoak, justiziazaleak».
- ²⁰ «Esandako ermandadearen buruan jarritako alkateak ikustea eta zuzentzea, kereilarien aldeko zuzenbide eta justizia behar den bezala ez bazuten egingo».
- ²¹ «Arabako Ermandadearen hiri, hiribildu eta lekuen alkateak, komisarioak, prokuradoreak».
- ²² «Herri-jende askotako ermandade batzuk, Castañade Kondea eta Iñigo López de Mendozagatik, haien artean ezberdinak eta beste iritzikoak zirenak, lurralde hartako basailuei buruz, baino ez zuten asko iraindu, eta gero mantsotu eta lasaituak izan ziren».
- ²³ «Zaldunen etxe batzuk lurrera botatzen, eta behar ez diren beste gauza batzuk egiten hasi ziren, hauen artean Pedro López de Ayala inguratu zuten... Agurain deitzen zen bere hiribildu batean».
- ²⁴ «Pedro López de Ayala setiatu zuten ermandadeek Kondearen etorria jakin zuten gero, handik abiatu, Kondea haien atzetik joan zen eta asko hil eta atxilotu zituen, eta haien etxeak lurrera bota zituen eta kalte handiak egin zituen, eta merezi zuten zigorra hartu zuten; horrela ermandadeak lur jota geratu ziren eta ezin izan zuten iraun».
- ²⁵ «Esandako hirian eta haren jurisdikzioan hilketak, gaiztakeriak, ekintza burutuak eta beste delitu asko egin dira²; eta «gaizkileak eta delitugileak zigorrik gabe geratzen dira».
- ²⁶ «haien aurka justizia osoa jarritz».
- ²⁷ «Indarkeriak, lapurretak, beste gaitzak, kalteak, zio gabeko eta zuzenbidearen arabera ez diren lotsagabekeriak norbaitek edo norbaitzuek»
- ²⁸ «Beldurragatik, behar ez ziren aitzakiak jarri ondoren, Jainkoaren eta neure zerbitzuari, neure justiziaren betetzeari eta neure erresumen gauza publikoari dagokiona onartu gabe».
- ²⁹ «Arabako lurraldeko aipaturiko hiri, hiribildu eta lekuetako prokuradoreek»
- ³⁰ «persona batzuek, gaizkileek, baztertuek, auzipekoek, lekaioek eta beste batzuek oraindik Lapurretak, indarkeriak, erreketak, hilketak, gizoni egindako zauriak, gehiegikeriak, delituak eta gaiztakeriak»
- ³¹ «Arabako lurraldeko esandako hiriek, hiribilduek eta lekuek, eta hango bizilagunek eta egoilek ermandadea egin dezatela, neure zerbitzuari dagokion gauzak egiteko, neure justizia egiteko, guztion onerako eta esandako Araba lurraldea lasaitzeko».
- ³² «...esandako Arabako ermandadea gera eta iraun dezala, galbidera eta desegin ez dadila...».
- ³³ «Bizkaia, Gipuzkoa, Enkarterriak eta Mena eskualdeko ermandadeen alkateei, prokuradoreei, ofizialei eta beste edozein pertsonari, eta

neuri edozein korrejidore eta justiziei... legezkoa eta behar den fabore eta laguntza eman diezaietela, esandako ermandadeak gorde eta iraun dezala, galbidera eta desegin ez dadila, neure zerbitzuari eta neure justiziari dagozkien beste gauza guztiak bete daitezela».

³⁴ «Fernand Gonçalez de Toledo eta Diego Martynez de Çamora Doktoreek, eta Pero Alonso Valdivyelo eta Juan Carcía de Sancto Domingo lizentziadunak»

³⁵ «esandako Arabako ermandadeak, Gasteiz hiria, Agurain, Miranda eta Pancorvo hiribilduak era ermandadeen partaide ziren beste hiribilduak esandako ermandadearen barne direlarik».

³⁶ «Txit noble eta leiala den Arabako Probintzia gobernatzan duten Lege eta Ordenantzen Koaderno».

³⁷ «Era berean agintzen dugu ermandadeek urtean bi bilkura nagusi egin ditzatela; esandako bilkura horietako bat Gasteiz hirian egin dadila eta bestea Biltzarrek aukeratzen duten lekuan; esandako biltzarrek agintzen zuten lekuan bil daitezela eta ez beste edozein lekutan bidezko kausarik ez badago; bietariko lehenengoa, urte bakoitzean maiatzaren lehen egunean egin dadila, eta bigarrena azaroan, Done Martin egunean; eta esandako Biltzar Nagusiak, bilkura bakoitzean, ez ditzatela hamabost egun baino gehiago jardun».

³⁸ «Agintzen dugu Biltzarretara prokuradoreak bidali behar dituzten kontzejuek eta unibertsitateek, ez dezatela bidal prokuradore bat edo bi baino gehiago; bidal ditzaten gizon onak, ospetsuak, egokiak, jabeak, zintzoak, aberatsak, laurogei mila maraietan abonatuak, nahi oneko eta aginpedunak, biltzarren gauzak ondo zuzentzeko. Ez ditzatela bidali esandako biltzarretara gaizkileak direnak edo izanak, ez zaldunen edo ahaide nagusien aldekoak edo haien zaleak, ez ahien edo besteen gauzak erabaki behar dutenak, ez prokurazio salgai jartzen dutenak eta gutxienezko sariak nork joan nahi duen esaten direnak, orain arte batzuek egin duten bezala, ez eta kargua alokatzen dutenak ere, bidaltzen dituztenak

horretarako egokiak ez baldin badira. Ez bidaltzeko prokuradorerik norbaitek eskatu duelako, ezta agertzea eskatzen duen pertsonarik ere, ez bada ulertzen haiek, eta ez beste batzuek, betetzen dituztela botere batzuk, eta haiei soldata eman behar diete biltzarretan arituko diren egunen truke».

³⁹ «Batzutan Biltzarrek Nafarroatik edo antzeko lekuetatik etortzen ez diren gauzak egin dituzten eta egiten dituzte, eta ermandadearen kasuei, justizia egiteari eta ermandadearen koadernoan arabera egin ahal eta behar duten gauzei dagozkien beste gauzak egin eta agindu ez ditzatela; eta esandakoaren gainean beste zenbait gauza eginbo galute, baliogabe gera daitezela eta ermandadeak obeditu eta bete ez ditzatela».

ORDENANZAS

Y Leyes del quadero Con que
se gouerna esta muy Noble y
Alouy leal Prouincia de alaua da
das porel S.^r Rey Don Enrri-
que Quarto en el Año de 1463.

Las quales despues fueron
Confirmadas por los señores
Reyes Catholicos el año de 1488.

Y el S.^r Emperador Carlos V. las
Confirma y aprueba el año de

1537.



Caⁿ A